

ILLUNBE BUELTAKA JARTZERA

Oparoa belaunalditan, parekidea zenbakitan, puntaduna ikuskeratan

TESTUAK / Amagoia Mujika Telleria

ARGAZKIAK / Jon Urbe | FOKU

Gaur jokatuko da Donostia Arenan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala. Illunbekoa tontorra izango da, baina badira hiru hilabete txapelketa abiatu zela. Final-zortzirenetan 42 bertsolari abiatu ziren eta saioz saio joan

da inbutua estutzen. Zortzi aulkirentzat bakarrik dago tokia Illunbeko oholtzan eta azkenerako zortzikote interesgarria; beteranoak, berriak, galtzeko gutxi dutenak, irabazteko asko... zortzi sinadura propio.

Gipuzkoako finala. Batzuentzat helburu, besteentzat ezusteko gozo. Denentzat, plaza izugarria, sei mila lagunetik gorako magal borobila. Zortzi bertsolari arituko dira ohol-tza gainekoa josten, lau gizon eta lau emakume; bost aurretik finalista izandakoak, hiru finalista berriak. Bi zati izango ditu finalak. Lehenengoan, bertsolari bakoitzak 15 bertso puntuagarri abestu beharko ditu: binaka zortziko handian; binaka zortziko txikian; bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian; binaka hamarreko txikian, eta, bakarka, gaia emanda, nahi den doinuaren eta neurrian.

Lehen fase horretan puntuazio altuena lortzen duten bi bertsolariek pausoa aurrera eman eta buruz burukoa jokatu dute. Beste hamar bertso puntuagarri bakoitzak: binaka seiko motzean, binaka zortziko txikian puntutan eta kartzelako lana.

Saio guztiko puntuazioak baita, lehen atalekoak eta bigarrenengoak, erabakiko da txapelduna. Xabier Gaztelumendik jantziko dio txapela txapeldunari, Gipuzkoako Bertsozale Elkartean urte askoan isileko lana egin duen añorgarra bera. Dena prest dago. Bertsozalea aulkian eseriko da eta baimena emango die bertsolariei Illunbe bueltaka jarri eta nahi duten tokira eramanez.

XABIER GAZTELUMENDI LOPETEGI

«Bertigoia ematen dit, baina gailentzen den emozioa esker ona da, elkarteari eta kide guztiei»

Xabier Gaztelumendik (Añorga, 1961) jantziko dio txapela txapeldunari. Bertsozalea betidanik, Usurbilgo eta Orioko bertso eskolen jiran ibilia, Gipuzkoako Bertsozale Elkartea barrutik ondo ezagutzen du. 2002tik elkartean «inurri lan nekaezinean» aritua, lehen zortzi urteetan diruzain eta hurrengo zortzi urteetan idazkari. Bitarte horretan Zuzendaritza Batzordeko kide izan da eta eguneroko lanak eta kontu operatiboak kudeatzen aritu da Administrazio Sailekoekin. Gipuzkoako Bertsozale Elkartek isileko lan hori guztia eskertu nahi izan dio eta txapela janzteko lana eman, berak «ohoretzat» hartu duena. Ez omen da plazagizona, baina pozik beteko du emandako enkargua Illunbeko plaza handian.

Nola zaude?

Hasieran susto handia hartu nuen, inoiz ez duzulako espero horrelako gauza bat zuri egokituko zaizunik. Pixkanaka beste emozio batzuk gailentzen dira, batez ere esker ona. Joxe Mari Altuna izan zen nire aurretik diruzaina elkartean. 2002an pasa zidan erreleboa eta gogoratzen naiz nola esan zidan, «Xabier, nik ez dakit elkarteari zerbait eman diodan, baina elkarteak niri zenbat eman didan!». Nik ere nire kargua utzi nuenean 2008an nire egin nituen hitz horiek. Eta orain, txapel emaila izatearen ohorea eskaini



didatenean, esker on hori neurri gabekoa da.

Bertsolaritzaren ekosistematik kanpo ez dakit ulertzen ote den nola hor barruan denak zerbaiten parte sentitzen zareten.

Horrela da, bai. Egia da gaur egungo gizartearen elkartearen balio batzuk ez direla ondo ulertzen, adibidez, borondatezko lana. Gaur egun borondatezko lana ez dago oso kotizatua, bakoitza gure eskolean bizi gara eta lanetik kanpoko denbora norbere buruari eskaintzea da ohikoena. Elkartea, besteak beste, borondatezko lanari esker bizi da; bestela ez litzateke ez txapelketarik ez sustapen lanik ez beste gauza askorik egongo.

Ekosistema hori osasuntsu dago. Zein da horren gakoa?

Elkarteak asmatu du belaunaldi berrietara iristen, transmititzen, eta gizartearengana ere iritsi egin da. Hala ere, ez dago formula magikorik eta, bertsoa inprobisatzen den bezala, elkartegintza ere neurri batean inprobisatu egin da. Elkartea eta bere funtzionamendua, neurri batean, oso esperimentalak dira; segurutik, baina esperimentatzen. Adibideak asko dira; lehendakari bat izan beharrean taldean izatea, funtzionatzen zuten hainbat gauzari buelta ematea –Euskal Herriko

«Urduritasun handia ematen du txapelketa guraso bezala bizitzeak. Kasu honetan, urduritasuna bikoitza izango da, txapel-emaila izango naizelako»